

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### **Gaubeako leku turistiko interesgarrietako sarrerarengatik eta haiek gidarekin bisitatzegatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantza**

Udalbatzak, uztailaren 30eko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Gaubeako leku turistiko interesgarrietako sarrerarengatik eta haiek gidarekin bisitatzegatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzari.

Eta betetzeko toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 65.2 artikuluetan eta toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Gaubea, 2021eko urriaren 14a

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA SALAZAR SENSO**